

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO IRAKURKETA-PLANEKO PROIEKTUAK

4



2011ko azaroa

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO IRAKURKETA-PLANA

Proiektuen zerrenda

1. Autoebaluzioko tresna bat ezartzea eskola-liburutegietan.
2. 24 x 7 Eskola-liburutegi digitala baliabide-zentro gisa.
3. Aditu-talde bat sortzea informazio-alfabetatzea (ALFIN) eskola-curriculumean sartzeko.
4. Kirol-esparruetan irakurketa sustatzea.
5. Euskal Autonomia Erkidegoko irakurketa-elkarteei eta tertulia literarioei laguntzeko zerbitzu bat sortzea.
6. On-line tresna bat sortzea irakurketa publikoaren mapa eguneratzeko eta hobetzeko.
7. EAEko XXI. menderako liburutegi-zerbitzuen gaineko azterketa egitea.
8. Aditu-talde bat sortzea lankidetzarako.
9. EAEko liburutegi publikoetarako txartel bakarra ezartzea.
10. Udal-liburutegi publikoetako tokiko funtsak digitalizatzea.
11. Liburutegi publikoen kudeaketa hoberenaren saria sortzea.
12. Gurasoentzako ikastaroak eta lantegiak.
13. *Pantaila-irakurgailuak*, familientzako alfabetatze digitaleko kanpainak.
14. On-line prestakuntza-proposamenak bitartekariarentzat.
15. *Elkarrekin irakurtzen dugu*, mailegu-zerbitzu bereziak.
16. Argitalpenak: irakurketa-gidak (paperean eta digitalak).
17. Argitalpenak: material didaktikoak.
18. Liburutegi-zerbitzuak ospitaleetan.
19. Liburutegi-zerbitzuak osasun-zentroetan.
20. Aholku emateko webgune bat sortzea.
21. Irakurketa sustatzeko programa espezifikoak.
22. Familia-lantegiak.
23. Gazteentzako programak.
24. Mutilen eta gizonezko gazteen kolektiboaren gaineko eragin espezifikoaren plana.
25. Espazio birtualak/Familien ataria 2.0.
26. Irakurketako udal-planak lantzea eta onartzea hiru euskal udalerritan.
27. Irakurketa-kanpainak enpresetan.

AUTOEBALUAZIOKO TRESNA BAT EZARTZEA ESKOLA-LIBURUTEGIETAN (P01-Evalua-BE)

Eskola-liburutegientzat autoebaluazioko tresna bat landuz eta ezarriz gero, prozedura-gida bat izango du ikastetxeak, bai eta pauso bakoitzean informazioa biltzeko aukera emango dioten tresnak ere. Esaterako: liburuzainarentzako galdetegi-eredu bat; elkarrizketa-eredu bat ikasketa-buruarentzat; ondorio-orri bat irakasle-talde baten bilerarako, etab. Lorpenen baremo bat ere jasoko du, eta, horren bidez, egoera bakoitzeko emaitzen mailak zehaztuko dira zeintzuk dagozkigun jakiteko. Honako eskema hau aplikatzeko iradokizunak ere jasoko ditu: gomendatzen diren prozedurak, programazioa, urte batetik bestera emaitzak aztertzeko sistemak, etab.

Planak proposatutako programa pilotuetako bat da, eta dagoeneko Britainia Handian aplikatu diren esperientzietan eta German Sanchez Ruiperez Fundazioak eskola-liburutegien gainean egindako azterketetan oinarritzen da. Zehazki, *Bibliotecas escolares ¿entre interrogantes? Herramienta de autoevaluación basada en preguntas para mejorar la biblioteca* (Eskola liburutegiak galde-ikurrekin?, Liburutegia hobetzeko galderetan oinarritutako autoebaluazioko tresna) proiektuan landutako eredu teorikoa jarraitzen du.

Tresna hori proiektu pilotu gisa landuko eta abiaraziko da ikastetxe gutxi batzuetan 2012n zehar. Gerora, emaitzak ebaluatu ostean, 2012-2013 ikasturtean zehar gainerako ikastetxeetan aplikatu edo ez erabakiko da. Tresna ezartzerakoan eta abiarazterakoan, paper garrantzitsua izango du Hezkuntza Sailak, eta, zehazki, eskola-liburutegien arloko ACEX programak.

Autoebaluazioko tresna horren bidez, honako hauek landuko eta aplikatuko dira: A.2 helburu estrategikoa, "Eskola-liburutegiak sustatzea ikastetxeetan irakurketa sustatzeko eta IKTak hezkuntza-jardueran sartzeko tresna diren heinean", eta L-02 jarduera-ildoak, "Ikastetxeetako liburutegiek kalitate-estandar adostuei jarraiki funtzionatzea sustatzea".

24 x 7 ESKOLA-LIBURUTEGI DIGITALA BALIABIDE-ZENTRO GISA

(PO2_BEdigital)

Baliabideak -hezkuntza-baliabideak bereziki- bilatzeko tresna bat sortuko da. Tresna horretan, metadatu garrantzitsuekin eta erabilgarriekin sailkatuko da informazioa, eta, horrela, liburuzainaren orientazio-lana erraztuko da, aplikazioak zein baliabideak bilatzeko orduan. Gainera, topaleku eta lantoki bihur liteke edo bihurtu beharko litzateke, liburuzainen eta erabiltzaileen baterako parte-hartzea sustatzeko. Hori horrela, hutsetik hasi beharrean, hainbat ikastetxek eta irakaslek gauzatutako eta egun bananduta dauden ekimenak oinarri hartu eta bildu behar litzuzke.

Eskola-liburutegi digitalaren erabiltzaileek baliabide digitalen zerrenda propioa egin ahal izango dute, bakoitzaren bilaketaren edo liburuzainen gomendioen bidez eskuratutako baliabideena hain zuzen ere.

2012. urtean zehar landuko eta ezarriko da tresna hau.

Tresna honen bidez, honako hauek landuko eta aplikatuko dira: A.2 helburu estrategikoa, "Eskola-liburutegiak sustatzea ikastetxeetan irakurketa sustatzeko eta ICTak hezkuntza-jardueran sartzeko tresna diren heinean", eta L-02 jardueraildoa, "Ikastetxeetako liburutegiek kalitate-estandar adostuei jarraiki funtzionatzea sustatzea".

ADITU-TALDE BAT SORTZEA INFORMAZIO-ALFABETATZEA (ALFIN) ESKOLA-CURRICULUMEAN SARTZEKO (P03_Alfín)

PISA 2009 ikerketako emaitzek, eta testu digitalen irakurketako emaitzei buruzko txostenak bereziki, agerian utzi dute hezkuntza-sistemak honako erronka berri hau duela: irakurmena lantzen lagundu behar die belaunaldi berriei, gaitasun hori ez baita berezkoa belaunaldi digitaleko ikasleen artean, kontrakoa badirudi ere. Ingurune digitaletan, edo, hobe esanda, egungo ingurune hibridoetan, irakurri ahal izateko, ohiko gaitasunak areagotzeaz gainera, irakurketako eta idazketako beste gaitasun berri batzuk eskuratu behar dira (testu digitalak irakurtzeko eta idazteko gaitasuna, euskarri desberdinetako testuak edo mezuak kanal desberdinetan aukeratzeko, erabiltzeko eta komunikatzeko gaitasuna, jarraituak ez diren testuak eta mezu multimedietako testuak etab.; informazio-alfabetatze edo ALFIN [gaztelaniazko “alfabetación informacional” terminoaren akronimoa] deitzen zaie horiei guztiei).

Hortaz, serioski aztertu behar da alfabetatze berri hori nola landuko dugun, datozen belaunaldiak egungo eta etorkizuneko mundurako prestatuta egon daitezten. Planak lehenengo pauso bat ezartzen du ildo horri jarraiki: 2012an aditu-talde bat eratuko da hezkuntza-maila bakoitzean (lehen, bigarren eta goi-mailako hezkuntzak) ALFIN nola sartu aztertzeko eta proposatzeko.

Aditu-talde horren bidez, honako hauek landuko eta aplikatuko dira: A.1 helburu estrategikoa, “Informazio-alfabetatzea sartzeko lehen, bigarren eta goi-mailako hezkuntzetako curriculumen diseinuan”, eta L-03 jarduera-ildoak, “Laguntza-zerbitzuak eta -ekimenak eskaintzea irakasleei irakurmena hobetzeko eta irakurketa sustatzeko lanerako”.

KIROL-ESPARRUETAN IRAKURKETA SUSTATZEA * (P04_Depor)

Irakurketa sustatzeko kanpainak gauzatuko dira, bai kirola egiten den uneen inguruan, bai eta eliteko kirolaren edo kirol profesionalaren inguruan ere. Gizonezko gazteengan eta helduengan eragiteko prestatutako kanpaina bat da, izan ere, ikerketen arabera, populazio-segmentu horrek askoz ere irakurketa-ohitura txikiagoa du emakumezkoen populazioarekin alderatuta.

2012an zehar gauzatuko diren hainbat jardueraz osatzen da proiektua: liburu-sailak sartzea herri-lehiaketetako sarietan; kirol bakoitzari buruzko irakurketa-gidak sortzea eta lehiaketetan eta kirol-instalazioetan banatzea; dagokion kirolari inguruan merkatuan dauden liburuei eta elkarrizketei buruzko informazioa sartzea federazioen web-orrietan, etab. Sustapen- eta komunikazio-jarduerak ere egingo dira euskal telebistan eta beste komunikabide batzuetan; eliteko kirolariek parte hartuko dute jarduera horietan, gizonezkoen populazioarentzat prestigio-erreferentzia diren heinean.

Kirol-esparruetan irakurketa sustatuz, honako hauek landuko eta aplikatuko dira: B.1 helburu estrategikoa, "45 urtetik beherako gizonezkoen irakurketa-indizeak hobetzea", C.3 helburua, "Irakurketa eta idazketa sustatzeko hiri-espazioak sortzea ohiko espazioetatik kanpo", eta L-14 jarduera-ildoak, "Kirol-esparru nagusietan irakurketa sustatzeko kanpainak egitea, gizonezko helduei eta gazteei zuzendutakoak".

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO IRAKURKETA-ELKARTEEI ETA TERTULIA LITERARIOEI LAGUNTZEKO ZERBITZU BAT SORTZEA (P05_Clubes)

Irakurketa-elkartek inoiz baino hazkunde handiagoa ari dira bizitzen duela urte batzuetatik hona. Gainera, parte-hartzaileen artean irakurketa-ohiturak eta -gaitasunak lantzeko ahalmen handia dute, parte-hartzaile horiek irakurketa-ohitura txikia duten populazio-sektoreetatik badatoz ere neurri handi batean. Halaber, tertulia literarioek ere bilakaera nabarmena izan dute, eta potentzialtasun handiak dituzte.

Bilakaera hori orekatua eta eraginkorra izan dadin, horien euskarri diren erakundeei (liburutegi publikoak, ikastetxeak, kultur etxeak, zentro sozialak edo hainbat motatako elkarteak) laguntzeko zerbitzu bat ezarri behar da. Honako hauek eskaini behar ditu zerbitzuak lurralde-esparru bakoitzean:

- Irakurketa-sailak eskuragarri jartzea kolektibo askorentzat, eta ahal hainbat orientaziotakoak.
- Begiraleentzako hasierako eta etengabeko prestakuntza, hezkuntza- eta kultura-esparruetan bildutako baterako esperientziaz baliatuz.
-
- Jarduera jakin batzuk sustatzea.
- Laguntzarako plataforma teknologiko bat, 2.0 tresnak erabiltzeko aukera eman eta sustatuko duena, blogetatik hasi eta apalategi birtualetara arte.

Eraginkortasun-arrazoiak direla eta, zerbitzu horiek lurralde-esparru jakin baterako diseinatzea gomendatzen da, hala nola, probintzia edo lurralde historiko baterako. Dagokion Foru Aldundiarekin lankidetzan eta hori protagonista dela antolatuko dira zerbitzuak, eta probintzia-liburutegiak koordinatuko eta gauzatuko ditu. 2012an zehar abiaraz daitezke.

Irakurketa-elkarteei eta tertulia literario dialogikoei laguntzeko zerbitzu horren bidez, honako hauek landuko eta aplikatuko dira: A.3 helburua, "Herritarren irakurmena eta idazmena hobetzea", A.4 helburua, "Bazterketa-arriskuan dauden sektoreen (etorkinak, pertsona nagusiak, hezkuntza-maila baxuko pertsonak) irakurmena eta idazmena hobetzea lehentasunez", eta L-01 jarduera-ildoak, "Irakurketako eta idazketako elkarteei eta lantegiei laguntza emateko zerbitzuak sortzea beste erakunde batzuekin lankidetzan".

ON-LINE TRESNA BAT SORTZEA IRAKURKETA PUBLIKOAREN MAPA EGUNERATZEKO ETA HOBETZEKO (P06_Map)

Liburutegien egoeraren deskribapena urtero modu errazean eguneratzen lagunduko duen tresna bat sortzea; tresna horrek, halaber, estandarrak ezartzen eta plangintza-beharrak zehazten lagunduko du.

EAEko administrazio-mapa batetik abiatuta, orokorrean eta udalerrri bakoitzean zer egoera dagoen bistaratzeko aukera emango du horien populazio-neurriari, liburutegi-zerbitzuei, estandarrekiko egokitzapen-mailari eta esku hartzeko beharrei dagokienez.

Tresna hori lantzeko, lau lan-prozesu gauzatu beharko dira, eta gutxienez urtebete hartuko du horrek. 2007an argitaratutako lana hartuko da abiapuntu (EAEko Irakurketa Publikoaren Mapa):

- Egungo egora deskribatzea eta aztertzea liburutegi publikoen estatistika ofizialetan oinarrituta, eta urtero eguneratzea.
- Liburutegi publikoen estandarrak ezartzea; horretarako, gaur egungo egoerara egokituko dira 2007an ezarritakoak, eta beste modu batean antolatuko dira tresnan sartu ahal izateko.
- Udalerrri bakoitzak zer behar eta lehentasun dituen zehaztea; horretarako, hasierako egoera eta estandarretan zehaztutako egoera ideala erkatuko dira.
- EAEko liburutegi-sareko unitate guztietako arduradunekin harremanetan jartzea eta horiei kontsulta egitea; dagokion zerbitzua estandarretara egokitzeko jarraibidea, lehentasunak eta jarduera-epeak jakinaraziko zaizkie.

Irakurketa Publikoko Mapa eguneratzeko on-line tresna horren bidez, honako hauek landuko eta aplikatuko dira: C.2 helburua, "Liburutegi publikoetako hornidurak, sare-egiturak eta IKTetan oinarritutako zerbitzuak hobetzea", C.4 helburua, "Euskal udalek irakurketako zerbitzu publikoekin duten konpromisoa eta horien kudeaketa hobetzea haien eraginpeko eta jarduera zuzeneko esparruetan (liburutegi publikoak...)", eta L-21 jarduera-ildoak, "Irakurketa publikoko mapa berregitea eta onartzea, eta liburutegiak mapan ezarritako estandarretara nola egokituko diren zehaztea plangintza baten bidez, 11/2007 Legeak, EAEko liburutegiei buruzkoak, xedatutakoari jarraiki".

EAEKO XXI. MENDERAKO LIBURUTEGI-ZERBITZUEN GAINEKO AZTERKETA EGITEA (P07_Estudio)

Ikerketa bat egitea, batetik, euskal herritarrek liburutegi-zerbitzuen gainean zer igurikimen dituzten jakiteko, eta, bestetik, langileek zer ikuspegi duten jakiteko. Horrela, etorkizunean zer lan-ildo jarraitu beharko ditugun jakin ahal izango dugu XXI. mendeko gizartearen beharretara egokitutako liburutegi-zerbitzuak eduki ahal izateko. Horretarako, azterketa bi metodologiari jarraiki gauzatzea proposatzen da:

- Alde batetik, inkesta bat egingo zaio euskal populazioaren lagin bati, lagineko pertsonak EAEko irakurketa-publikoko sarea erabili edo ez. Egungo liburutegi-zerbitzuak balioetsi beharko dituzte, eta zer zerbitzu eduki nahi luketen esan.
- Bigarrenik, euskal liburuzainen artetik aukeratutako aditu-talde baten erantzunak hartuko dira abiapuntu. Delphi metodoa erabiliko da horien erantzunak biltzeko. Xedea da parte-hartzaileen iritzia biltzea eta egituratzea, egindako baieztapenen inguruan adostasuna edo desadostasuna dagoen jakiteko.

Liburutegietako langileek dituzten erronka eta arazo berriak jaso beharko ditu, irakurketako formatu berrien tratamendutik hasi eta garai hauetako erosketa-politikak berrikustera arte. Gutxi gorabehera, zortzi hilabetetan prest eduki dezakegu ikerketaren amaierako emaitza, eta tresna erabilgarria izango da gerora erabakiak hartu ahal izateko. Hori horrela, irakurketa publikoko sare moderno bat eraiki ahal izango dugu, egungo egoerara egokitutakoa.

Liburutegi-zerbitzuei buruzko ikerketa horren bidez, honako hauek landuko eta aplikatuko dira: C.2 helburua, "Liburutegi publikoetako hornidurak, sare-egiturak eta IKTetan oinarritutako zerbitzuak hobetzea", eta L-22 jarduera-ildoak, "Liburutegi publikoen zerbitzuak berrantolatzea eta eguneratzea herritarren 2020ra bitarteko egoerarako aurreikusitako beharren eta igurikimenen arabera".

ADITU-TALDE BAT SORTZEA LANKIDETZARAKO (P08_Coopera)

2012an aditu-talde bat eratuko da EAEko irakurketa publikoaren esparruan erakunde-arteko lankidetzarako modu zehatzak iker eta proposa ditzan. Horrela, liburutegi-sareen eta -sistemen integrazio- eta finkatze-faltarekin lotutako arazoak gainditu nahi dira. Talde horren lehentasun nagusitako bat izango da modu eraginkorrek aurkitzea eta proposatzea euskal liburutegi publiko guztiak irakurketa-sare bakar batean biltzeko behin betiko.

Aditu-talde hori sortuz, honako hauek landuko eta aplikatuko dira: C.2 helburua, "Liburutegi publikoetako hornidurak, sare-egiturak eta IKTetan oinarritutako zerbitzuak hobetzea", C.4 helburua, "Euskal udalek irakurketako zerbitzu publikoekin duten konpromisoa eta horien kudeaketa hobetzea haien eraginpeko eta jarduera zuzeneko esparruetan (liburutegi publikoak...)", eta L-23 jardueraildoa, "EAEko irakurketa publikoko sarea herritarrentzako zerbitzu bakar gisa finkatzea xede duten jarduerak gauzatzea".

EAEKO LIBURUTEGI PUBLIKOETARAKO TXARTEL BAKARRA EZARTZEA (P09_Carné)

2012an zehar txartel bakar bat ezarriko da irakurketa publikoko euskal sareko liburutegi guztietako zerbitzuak erabili ahal izateko, horiek edozein udalerritan daudela eta edozein erakunderen jabetzakoak direla edo edozein erakundek kudeatzen dituela ere.

Ohiko zerbitzuak eskuratzeko aukera emango du txartel berriak, hala nola, liburuak maileguan hartzeko; bai eta IKTetan oinarritutako zerbitzu berriak eskuratzeko ere, esaterako, liburu elektronikoak maileguan hartzeko, multimedia bilduma digitaletara sartzeko, etab. Gainera, txartel berria sortu dela jakinarazteko kanpaina bat egin behar litzateke.

Txartel bakar horren bidez, honako hauek landuko eta aplikatuko dira: C.2 helburua, "Liburutegi publikoetako hornidurak, sare-egiturak eta IKTetan oinarritutako zerbitzuak hobetzea", eta L-23 jarduera-ildoak, "EAEko irakurketa publikoko sarea herritarrentzako zerbitzu bakar gisa finkatzea xede duten jarduerak gauzatzea".

UDAL-LIBURUTEGI PUBLIKOETAKO TOKIKO FUNTSAK DIGITALIZATZEA (P10_Digita)

Euskal liburu- eta dokumentu-ondarea digitalizatzeko strategiaren baitan, herritarrentzat oso interesgarria izan daiteke udal-liburutegi publikoetako tokiko funtsak digitalizatzea. Funts horiek material ugari (bibliografikoa, tokiko prentsa, material grafikoa, soinu-materiala eta ikus-entzunezkoa, literatura galkorra, horma-irudiak...) biltzen dute udalerrri eta lurralde-esparru bakoitzean. Batzuetan material bakarra izaten da, eta balio handia izaten du tokiko esparruarentzat, herritarrentzat, hezkuntzarako edo kulturarako.

Proposamena gauzatzeko, abiapuntu izan daiteke Euskal Liburutegi Digitalaren proiektua, *Liburuklik*, bai eta liburutegi batzuek tokiko funtsen sarearen bidez digitalizazioaren eta erabilerraztasunaren alorrean dagoeneko abiarazi dituzten ekimenak ere.

2012an gauzatuko litzateke proiektua, eta digitalizazio-prozesu horretan sartzeko aukera eman behar lieke irakurketa publikoko sareko liburutegi guztiei; formatuak normalizatuko dira, material guztiak plataforma berean bildu, eta plataforma horren katalogoa Euskal Liburutegi Digitalean sartu.

Udal-liburutegietako tokiko funtsak digitalizatuz, honako hauek landuko eta aplikatuko dira: C.2 helburua, "Liburutegi publikoetako hornidurak, sare-egiturak eta IKTetan oinarritutako zerbitzuak hobetzea", eta L-22 jarduera-ildoak, "Liburutegi publikoen zerbitzuak berrantolatzea eta eguneratzea herritarren 2020ra bitarteko egoerarako aurreikusitako beharren eta igurikimenen arabera".

LIBURUTEGI PUBLIKOEN KUDEAKETA HOBERENAREN SARIA SORTZEA

(P11_Premio)

Liburutegi publikoaren edo liburutegi publikoen udal-sarearen kudeaketari buruzko sari batera deitzea udalak. Sari horren xedea izango litzateke tokiko administrazioak irakurketa publikoko zerbitzuarekin duen konpromisoa sustatzea eta balioestea, hori ezagutaraztea eta zabaltzea, kudeaketako eredu eraginkorrak eta berritzaileak sustatzea eta zerbitzua hobetzea.

Bi pizgarri jasoko lituzke udal sarituak:

- Alkatearentzako (edo kultura-zinegotziarentzako) eta liburutegiko zuzendariarentzako bidaia bat EBko herrialde bateko (Finlandia, Frantzia, Danimarka, E. Batua, Holanda...) liburutegi-sistema bat ezagutzera joateko. "Lan-praktikaldia" izango da, jatorriko liburutegia edo udal-sarea bera hobetzeko balioko baitu.

- Aipatutako bidaiaren ondorioz sortutako proiektuaren arabera zerbitzua hobetzeko diru-laguntza.

Populazio-neurriari dagokionez mota askotako udalerriak eta liburutegi-zerbitzuak egongo direnez, saria zenbait modalitatetan banatzeko aukera aztertu beharko da.

Liburutegi publikoen kudeaketari buruzko sari horren bidez, honako hauek landuko eta aplikatuko dira: C.4 helburua, "Euskal udalek irakurketako zerbitzu publikoekin duten konpromisoa eta horien kudeaketa hobetzea (liburutegi publikoak...)", C.2 helburua, "Liburutegi publikoetako hornidurak, sare-egiturak eta IKTetan oinarritutako zerbitzuak hobetzea", L-33 jarduera-ildoak, "Euskal udalei laguntza eta pizgarriak ematea irakurketa sustatzeko zerbitzu-erako eta ekimen-erako" eta L-22 jarduera-ildoak, "Liburutegi publikoen zerbitzuak berrantolatzea eta eguneratzea herritarren 2020ra bitarteko egoerarako aurreikusitako beharren eta igurikimenen arabera".

GURASOENTZAKO IKASTAROAK ETA LANTEGIAK (P12_Talleres)

Gurasoentzako ikastaroak eta lantegiak antolatuko dira, beste batzuen arten, honako gai hauek lantzeko: irakurketa, IKTak, seme-alaben hezkuntza, eta gurasoentzat interesgarri diren beste zenbait gai. Parte-hartzea eta motibazioa bultzatzeko dinamikak gauzatuko dira, gerora erabili ahal izango dituzten baliabideak eta estrategiak ikas ditzaten (ildo horretatik, irakurketako jarraibide-proposamenak, etxean hurrekin batera gauza ditzaketen jolasak eta materialak, eta abar jasoko dituzte edukiek). Ahal bada on-line egingo dira, horrela errazagoa izango baita parte hartzen duen heldu bakoitzak bere agendan denbora aurkitzea.

Gurasoentzako ikastaro eta lantegi hauen bidez honako hauek landuko dira: B.2 helburua, "Irakurketarekiko zaletasuna sustatzea gazteen eta nerabeen arten, aisialdiko gozamen gisa ikus dezaten (gizonezkoen arten bereziki)", B.3 helburua, "Era askotako irakurketa-materialak sustatzea haurren eta gazteen arten, aisialdirako, ikasketetarako eta komunikazio-esparruetarako", eta L-15 jardueraildoa, "Familiei laguntza ematea irakurketa sustatzeko lanean".

PANTAILA-IRAKURGAILUAK, FAMILIENTZAKO ALFABETATZE DIGITALEKO KANPAINAK (P13_Alfín-Fam)

Alfabetatze digitaleko tutoretzapeko kanpainak gauzatuko dira liburutegietan eta hezkuntza-espazioetan. On-line erabilgarri dauden aktiboetan oinarrituko dira, eta horien xedea izango da informazio aurkitzeko, interpretatzeko eta berregiteko metodoak eta tresnak erabiltzen irakastea.

Hiru hilekoak izango dira alfabetatze-kanpaina horiek, eta erabiltzaileentzako prestakuntzako programa gisa antolatuko dira. Horiekin batera, parte-hartzeko eta proposamenak egiteko espazio birtualak ezarriko dira kanpainak dinamizatzeko eta aktibo egon daitezen. Horrekin guztiarekin, gizarte digitaleko hezkuntza- eta kultura-ereduen erakusgarri izango den euskal gizarte irakurle bat eraikiko dugu. [Erreferentziak FGSR: *Lectores de pantalla*, programas de *Formación de usuarios para niños y jóvenes* (Pantaila-irakurgailuak, erabiltzaileen prestakuntzarako programak haurrentzat eta gazteentzat) programa].

Programa guztietan, modu bereizian diseinatuko dira helduentzako (gurasoak) eta haurrentzako kanpainak.

Familientzako alfabetatze digitaleko kanpaina horien bidez honako hauek landuko dira: A.3 helburua, "Herritarren irakurmena eta idazmena hobetzea", B.3 helburua, "Era askotako irakurketa-materialak sustatzea haurren eta gazteen artean, aisialdirako, ikasketetarako eta komunikazio-esparruetarako", L-04 jarduera-ildoak, "Informazio-alfabetatzeko proiektuak ezartzea, LP/teknologi geletan (Kzgunek), sektore espezifikoei zuzendutakoak: pertsona nagusiei, familiei (gurasoak), gazteei, langabetuei, etorkinei...", eta L-15 jarduera-ildoak, "Familiei laguntza ematea irakurketa sustatzeko lanean".

ON-LINE PRESTAKUNTZA-PROPOSAMENAK

BITARTEKARIENTZAT (P14_F-Mediadores)

2012. urtean zehar on-line ikastaroak eta tutorial interaktiboak gauzatuko dira, familiekin, hurrekin eta gazteekin lan egiteari buruzkoak, eta espazio horien tutoretzapean gauzatzen diren ekintzak planaren ardatzekin bat datozela bermatzeko.

Bitartekarietzako on-line prestakuntzaren bidez, honako hauek landuko dira: D.4 helburua, "Irakurketarekin eta idazketarekin lotuta dauden profesionalen (hezkuntzakoak, egileak, kultura-industriak, irakurketako zerbitzu publikoak...) inplikazioa lortzea", B.2 helburua, "Irakurketarekiko zaletasuna sustatzea gazteen eta nerabeen artean, aisialdiko gozamen gisa ikus dezaten (gizonezkoen artean bereziki)", B.3 helburua, "Era askotako irakurketa-materialak sustatzea hurren eta gazteen artean, aisialdirako, ikasketetarako eta komunikazio-esparruetarako", eta L-15 jarduera-ildoak, "Familiei laguntza ematea irakurketa sustatzeko lanean".

ELKARREKIN IRAKURTZEN DUGU, MAILEGU-ZERBITZU BEREZIAK

(P15_Lotes)

Mailegu-zerbitzu bereziak abiaraziko dira, liburutegiek edo EAEIPren administrazioaren mendeko kultura-espazioek kudeatuko dituztenak, edo administrazio horrekin batera koordinatutakoak. Zerbitzu horien bidez, irakurketako eta aisialdiko materialak eskuratzeko aukera izango dute familiek. Material horiek osatzerakoan, kontuan hartuko dira familien aniztasuna, ezaugarriak eta lehentasun potentzialak (seme-alaben adinaren arabera).

FGSR fundazioaren *Leemos juntos* (Elkarrekin irakurtzen dugu) programa da horren erreferentzia garbia. Programa horren bidez, irakurketa-maletak uzten dira maileguan, liburuak eta ikus-entzunezko materialak eta horiek erabiltzeko jarraibideak biltzen dituztenak (maleta erabiltzeko eta horri probetxu ateratzeko iradokizunak jasotzen dituen liburuxka bat). Halaber, badaude antzeko esperientziak tertulia literarioetan, belaunaldi desberdinetako familien eta taldeen artean, eta horiek ere sustatuko lirateke zerbitzu horien bidez.

Mailegu-zerbitzu berezi horrekin, honako hauek landuko dira: C.3 helburua, "Irakurketa eta idazketa sustatzeko hiri-espazioak sortzea ohiko espazioetatik kanpo", B.2 helburua, "Irakurketarekiko zaletasuna sustatzea gazteen eta nerabeen artean, aisialdiko gozamen gisa ikus dezaten (gizonezkoen artean bereziki)", eta L-15 jarduera-ildoak, "Familiei laguntza ematea irakurketa sustatzeko lanean".

ARGITALPENAK: IRAKURKETA-GIDAK (PAPEREAN ETA DIGITALAK) (P16_Guias)

Irakurketa-gidak egingo dira zenbait euskarritako materialak (liburuak, ikus-entzunezkoak, web-orriak) jasoko dituztenak, eta irizpide desberdinen arabera antolatuko dira edukiak: gaika, adinaren arabera, euskarri motaren arabera... Horrekin, udal-liburutegiek zein eskoletakoek gauzatzen duten jarduera-mota hori sustatu eta zabaldu nahi da.

Formatu inprimatuak, digitalak edo bietakoak lantzea komeni den aztertu beharko da.

Irakurketa-gida horien bidez, honako hauek landuko dira: C.1 helburua, "Euskal etxeetako liburuen erosketa-indizeak eta hornikuntza hobetzea", B.2 helburua, "Irakurketarekiko zaletasuna sustatzea gazteen eta nerabeen artean, aisialdiko gozamen gisa ikus dezaten (gizonezkoen artean bereziki)", B.3 helburua, "Era askotako irakurketa-materialak sustatzea haurren eta gazteen artean, aisialdirako, ikasketetarako eta komunikazio-esparruetarako", L-15 jarduera-ildoak, "Familiei laguntza ematea irakurketa sustatzeko lanean", eta L-24 jarduera-ildoak, "Liburuak oparitzea sustatzeko publizitate-kanpainak gauzatzea".

ARGITALPENAK: MATERIAL DIDAKTIKOAK (P17_M-didacticos)

Material didaktikoak sortuko dira, irakurketarekin eta haurren eta gazteen interesekin eta ohiturekin lotutako gaietarako jarduerak jasoko dituztenak. Gurasoei zuzenduta egongo dira, baina erabilgarri izango dira, baita ere, beste bitartekari batzuentzat. Material didaktiko horiek landuko dituzten gaien artean, honako hauek sartu beharko dira: liburutegiak (eskoletakoak edo publikoak) erabiltzea eta horiez gozatzea sustatzeko gaiak, liburutegiak modu egokian erabiltzeko gomendioak eta jarraibideak (haurren liburutegiak zer diren eta zer ez diren, nola lagundu zure seme-alabei liburutegian liburu bat ongi aukeratzeko...).

Formatu inprimatuak, digitalak edo bietakoak lantzea komeni den aztertu beharko da.

Material didaktiko horien bidez, honako hauek landuko dira: A.1. helburua, "Informazio-alfabetatzea sartzeko lehen, bigarren eta goi-mailako hezkuntzako curriculumen diseinuan", B.3 helburua, "Era askotako irakurketa-materialak sustatzea haurren eta gazteen artean, aisialdirako, ikasketetarako eta komunikazio-esparruetarako", eta L-15 jarduerak, "Familiei laguntza ematea irakurketa sustatzeko lanean".

LIBURUTEGI-ZERBITZUAK OSPITALEETAN (P18_Hospital)

Liburutegi-zerbitzuak abiaraziko dira ospitaleetan. Xedea da ospitaleratuta dauden haurrei aisialdi-aukera bat eskaintzea haien erindoa atsegina izan dadin. Zenbait formatutako eta euskarrirako irakurketa-materialak bilduko dira zerbitzu horietan. [Erreferentziak FGSR: *LIBROS DE CABECERA* (OHEBURUKO LIBURUAK) programa].

Zerbitzu horiek abiarazteko, administrazio eskumendunaren (Euskal Osasun Zerbitzua-Osakidetza) laguntza behar da, bai eta hautatutako zentroetan lan egiten duten pertsonena ere.

Ospitaleetako liburutegi-zerbitzuen bidez, honako hauek landuko dira: C.3 helburua, "Irakurketa eta idazketa sustatzeko hiri-espazioak sortzea ohiko espazioetatik kanpo", B.2 helburua, "Irakurketarekiko zaletasuna sustatzea gazteen eta nerabeen artean, aisialdiko gozamen gisa ikus dezaten (gizonezkoen artean bereziki)", eta L-25 jarduera-ildoak, "Irakurketa sustatzeko zerbitzuak (mailegua) sortzea ospitaleetako eta osasun-zentroetako haurren atalean".

LIBURUTEGI-ZERBITZUAK OSASUN-ZENTROETAN (P19_Csalud)

Liburutegi-zerbitzuak abiaraziko dira osasun-zentroetan, hurrek eta haiekin batera doazen helduek irakurketa laburrak egin ahal izateko Lehen Mailako Arretako Zentroetako itxarongeletan, eta, horrela, itxarote-denbora arinagoa izan dadin. [Erreferentziak FGSR: *Leyendo espero* (Irakurriz itxaroten dut) programa].

Zerbitzu horiek abiarazteko, administrazio eskumendunaren (Euskal Osasun Zerbitzua-Osakidetza) laguntza behar da, bai eta hautatutako zentroetan lan egiten duten pertsonena ere.

Osasun-zentroetako liburutegi-zerbitzuen bidez, honako hauek landuko dira: C.3 helburua, "Irakurketa eta idazketa sustatzeko hiri-espazioak sortzea ohiko espazioetatik kanpo", B.2 helburua, "Irakurketarekiko zaletasuna sustatzea gazteen eta nerabeen artean, aisialdiko gozamen gisa ikus dezaten (gizonezkoen artean bereziki)", eta L-25 jarduera-ildoak, "Irakurketa sustatzeko zerbitzuak (mailegua) sortzea ospitaleetako eta osasun-zentroetako haurren atalean".

AHOLKU EMATEKO WEBGUNE BAT SORTZEA (P20_WDocentes)

Webgune bat sortuko da irakasle-kolektiboari irakurketa-baliabideak eskaintzeko eta horien gaineko aholkuak emateko. Gainera, irakasleek jakintza eta esperientziak partekatzeko aukera emango eta sustatuko du. Eskola 2.0 proiektuaren osagarri izango litzateke, edo proiektuan bertan sartuko.

Webgune horren bidez, honako hauek landuko eta aplikatuko dira: A.1. helburu estrategikoa, "Informazio-alfabetatzea sartzea Lehen, Bigarren eta Goi Mailako hezkuntzako curriculumen diseinuan", eta L-03 jarduera-ildoak, "Laguntza-zerbitzuak eta -ekimenak eskaintzea irakasleei irakurmena hobetzeko eta irakurketa sustatzeko lanerako".

IRAKURKETA SUSTATZEKO PROGRAMA ESPEZIFIKOAK

(P21_Fomento)

Irakurketa sustatzeko programa espezifikoak abiaraziko dira, curriculumak osatzeko eta ikasleek oinarritzko gaitasunak eskuratzen laguntzeko. [Erref. FGSR: *Partir de cero* (guarderías); plataforma *Webquest*; actividades de *Cuadernos del profesor* (Hutsetik hasita (haurtzaindegiak); *Webquest* plataforma; Irakaslearen koadernoko jarduerak) programa]. Eskolaren eta familiaren arteko lotura sendotuko duten estrategiak aplikatuko dira. Eskola 2.0 proiektuaren osagarri izango da programa hau ere.

Irakurketa sustatzeko programa espezifiko horien bidez, honako hauek landuko dira: A.1. helburua, "Informazio-alfabetatzea sartzea lehen, bigarren eta goi-mailako hezkuntzako curriculumen diseinuan", A.3 helburua, "Herritarren irakurmena eta idazmena hobetzea", B.3 helburua, "Era askotako irakurketa-materialak sustatzea haurren eta gazteen artean, aisialdirako, ikasketetarako eta komunikazio-esparruetarako", L-03 jarduera-ildoak, "Laguntza-zerbitzuak eta -ekimenak eskaintzea irakasleei irakurmena hobetzeko eta irakurketa sustatzeko lanerako", eta L-15 jarduera-ildoak, "Familiei laguntza ematea irakurketa sustatzeko lanean".

FAMILIA-LANTEGIAK (P22_Taller-fam)

Familia-lantegiak abiaraziko dira, bai linean, bai eta espazio fisikoetan ere, hala nola, liburutegietan eta beste zentro batzuetan. Elkarrekin gozatzeko, esperimintatzeko eta ikasteko aukera emango diete gurasoei eta seme-alabei. Parte-hartzaileen sormen-trebetasunak bultzatzea izango dute helburu, lankidetzarekin eta parte-hartzearekin lotutako dinamiken bidez.

Hainbat gai (literatura, antzerkia, artea, musika, argazkigintza, ikus-entzunezko lanak...) eta estrategia landu ahal izango dira era askotako edukien eta modalitateen bidez.

Familientzako lantegi horien bidez, honako hauek landuko dira: A.3 helburua, "Herritarren irakurmena eta idazmena hobetzea", B.2 helburua, "Irakurketarekiko zaletasuna sustatzea gazteen eta nerabeen artean, aisialdiko gozamen gisa ikus dezaten (gizonezkoen artean bereziki)", B.3 helburua, "Era askotako irakurketa-materialak sustatzea haurren eta gazteen artean, aisialdirako, ikasketetarako eta komunikazio-esparruetarako", eta L-15 jarduera-ildoak, "Familiei laguntza ematea irakurketa sustatzeko lanean".

GAZTEENTZAKO PROGRAMAK (P23_PJovenes)

Gazteentzako programak abiaraziko dira, plataforma birtualetan batez ere. Plataforma horietan, edukiak irauli eta informazio-komunikazioko zerbitzuak gaituko dira, bai eta parte hartzeko espazioak eta sormen-espazioak ere, gazteen gustuko gaiekin lotutakoak (musika, zinema, liburuak, antzerkia...). Liburutegietan eta antzeko espazioetan gauza daitezkeen bertatik bertarako beste proposamen batzuen osagarri izango dira [Erref. FGSR: *No te quedas fuera* (Ez gelditu kanpoan) plataforma].

Sare sozialetan oinarritutako eta komunikazio mugikorrekiko teknologiaren aukerak ustiatzen dituzten estrategiek oso aukera interesgarriak eta baliagarriak eskaintzen dituzten gazteekin jarduteko. Proiektua bat dator nonahiko kultura joerarekin, gailu digitalen bidez (telefono mugikorrek edo tableta digitalak) edozein tokitatik eskura daitezkeen aktiboak jasoko baititu. Gazteaukerarekin (EAEko Gaztediaren Ataria) lankidetzan gauzatuko da proiektua.

Gazteentzako programa horien bidez, honako hauek landuko dira: B.2 helburua, "Irakurketarekiko zaletasuna sustatzea gazteen eta nerabeen artean, aisialdiko gozamen gisa ikus dezaten (gizonezkoen artean bereziki)", B.3 helburua, "Era askotako irakurketa-materialak sustatzea haurren eta gazteen artean, aisialdirako, ikasketetarako eta komunikazio-esparruetarako", eta L-04 jarduera-ildoak, "Informazio-alfabetatzeko proiektuak ezartzea, LP/teknologi geletan (Kzgunekak), sektore espezifikoei zuzendutakoak: pertsona nagusiei, familiei (gurasoak), gazteei, langabetuei, etorkinei...".

MUTILEN ETA GIZONEZKO GAZTEEN KOLEKTIBOAREN GAINEKO ERAGIN ESPEZIFIKOAREN PLANA (P24_Impacto)

Eragin-plan espezifikoa bat diseinatuko da gizonezko haurren eta gazteen kolektiboarentzat. Behar bezala sartuko da aurreko puntuan aipatutako programetan, eta zenbait motatako jarduerak gauzatuko ditu (komunikazioko-motibazioko kanpaina, bitartekariei azpi-plan honetako helburu espezifikoak lantzen lagunduko dieten jarraibideak eta jarduera zehatzak).

Azpi-plan honen eragina eta emaitzen kalitatea areagotzeko, EAEko gizonezko haurrei eta gazteei zer gai eta leku (batzuk orokorrak eta beste batzuk espezifikoak) gustatzen zaizkien aztertu eta balioetsi beharko da aurrez, eta horiekin lotu beharko dira planaren atal honetako edukiak.

Gizonezko haurrentzako eta gazteentzako azpi-plan espezifikoa horren bidez, honako hauek landuko dira: B.1 helburua, "45 urtetik beherako gizonezkoen irakurketa-indizeak hobetzea", B.2 helburua, "Irakurketarekiko zaletasuna sustatzea gazteen eta nerabeen artean, aisialdiko gozamen gisa ikus dezaten (gizonezkoen artean bereziki)", B.3 helburua, "Era askotako irakurketa-materialak sustatzea haurren eta gazteen artean, aisialdirako, ikasketetarako eta komunikazio-esparruetarako", eta L-11 jarduera-ildoak, "Espezifikoki gizonezkoen zuzendutako programak abiaraztea irakurketa-sustatzeko".

ESPAZIO BIRTUALAK/FAMILIEN ATARIA 2.0. (P25_Portal)

Zenbait espazio birtual bilduko dira "Familien ataria 2.0" izenpean (espezifikoki edo EAElPrentzat sortuko den webgune globaleko espazio banandu gisa), eta irakurketaren arloko informazioa eta aholkuak jasoko dira horietan gurasoentzat (liburutegietako eta kultura-guneetako eskaintza kulturalaren gaineko jarduera eta ekitaldi nagusien berri ematea, etxeetarako interesgarri diren albisteak, irakurketaren inguruko gomendioak, hurrekin lotutako hezkuntzari, irakurketari, arteari eta abarri buruzko aholkuak eta ideiak...). Halaber, parte hartzeko bide eta topaleku izango da gurasoek hainbat gai eztabaidatu ahal izateko, ideiak partekatzeko, haien ekarpenak edo seme-alabenak egiteko etab., eta, azken batean, irakurketaren gaineko jakintza partekatu nahi duten gurasoen komunitate birtualak eratuko dira.

Gurasoentzako on-line irakurketa-elkarteak dira espazio horietan jaso eta dinamiza daitezkeen aktibo zehatzen erakusgarri.

Familien ataria 2.0 proiektuaren bidez, honako hauek landuko dira: B.2 helburua, "Irakurketarekiko zaletasuna sustatzea gazteen eta nerabeen artean, aisialdiko gozamen gisa ikus dezaten (gizonezkoen artean bereziki)", A.3 helburua, "Herritarren irakurmena eta idazmena hobetzea" eta L-15 jarduera-ildoak, "Familiei laguntza ematea irakurketa sustatzeko lanean".

IRAKURKETAKO UDAL-PLANAK LANTZEA ETA ONARTZEA HIRU EUSKAL UDALERRITAN (P26_PlanMuni)

Udalerrria da, zalantzarik gabe, gizartearengandik hurbilen dagoen erakunde politikoa eta administratiboa, eta horrek du gizartea herritarren xede komun baten alde mobilizatzeko eta komunitate-sinergieztan baliatzeko ahalmen handiena. Udal baten funtsezko eginkizuna da ongizatea eta bizikidetzaren kalitatea sustatzea, bai eta herritarren bizitza-, hezkuntza- eta ekonomia-aukerak ere.

Irakurketa era irakurmena xede garrantzitsuak dira udal-politika on bat gauzatzeko, lotura zuzena dutelako eskola-arrakastarekin, bizikidetzaren kalitatearekin, jakintzaren gizartearen goraldiarekin eta gizarte-ongizateko adierazle nagusiekin.

Hori horrela, irakurketa sustatzeko planak ezartzeko dimentsio-esparru ezin hobea da udalerrria. Udalek deialdi- eta sustapen-ahalmen handia dute herritarren bizitza hobetzen duten ekimenak hasteko. Eta ahalmen hori erabil dezakete herritarrengan irakurketa sustatzeko konpromisoa zabaltzeko.

Irakurketako udal-planak landu eta onartu nahi dira herritarrak irakurketaren alde mobilizatzea lortzeko, konplizitate-sare bat eratzeke eta helburu jakin baten aldeko ekarpenak sustatzeko, udalak baitira prozesu hori gauzatzeko erakunde aproposena.

2012an zehar, EAEko hiru udalerritan (5.000 eta 50.000 biztanle artekoak) abiaraziko lirateke irakurketa-sustatzeko udal-planak proiektu pilotu gisa, eta, gerora, beste udalerrri batzuetara zabalduko lirateke (neurri-mugarik gabe).

Udal-plan horien bidez, honako hauek landuko eta ezarriko dira: D.5 helburua, "Herritarren mugimendu bat sustatzea irakurketaren alde", D.3 helburua, "Euskal administrazioek irakurketarako ematen dituzten baliabideak handiagotzea, eta Eusko Jaurlaritzarenak bereziki", D.1 helburua, "Irakurketaren kontzeptu berri bat zabaltzea, eta egungo gizartean garrantzi handia duela gogoraraztea erakunde publikoetako, komunikabideetako eta kultura-enpresetako eta -industrietako arduradunei", C.4 helburua, "Euskal udalek irakurketako zerbitzu publikoekin duten konpromisoa eta horien kudeaketa hobetzea haien eraginpeko eta jarduera zuzeneko esparruetan (liburutegi publikoak...)" eta L-32 jarduera-ildoak, "Pixkanaka akordioak adosten joatea euskal udalekin, zehazki, esperientzia pilotu gisa udaleko irakurketa-plan bat ezartzeko prest dauden hiru udalekin". **IRAKURKETA-KANPAINAK ENPRESETAN** (P27_Empresas)

EAEIPren xedea da irakurketaren aldeko gizarte-mugimendu bat sortzea, adimena berrikuntza, aurrerapen eta aberastasun bihurtzeko tresnatzat jotzen baitu irakurketa. Parametro horietatik abiatuta, planeko jarduerak enpresa-sektorearekin lotu behar dira, eta *Enpresa irakurleen proiektuak* izeneko ideia baten bidez gauzatuko da hori.

Planaren esparruan, irakurketa-proiektuak antolatuko dira ekimen horiek gauzatu nahi dituzten enpresa pribatuetan. Enpresek dokumentu labur bat jasoko dute, gidaliburu digital baten modukoa, eta dokumentu horrez lagunduta, erronkari aurre egin beharko diote giza baliabideen sailetik. Lan-eskema horrez gainera, plana kudeatzeaz arduratzen den taldeak prestakuntza emango die enpresako irakurketa-proiektuko osagarri guztiak modu eraginkorrean antolatu ahal izateko. Irakurketa-proiektuen xede nagusia da enpresako liburutegi txiki bat sortzea eta irakurketako esperientzia kolektibo bat sortzea irakurle-elkarteen bidez. Proiektu bakoitzak ebaluazio-mekanismo bat izango du, eta, horren bidez, prozesuaren bilakaera eta emaitzak balioetsi ahal izango dituzte enpresako arduradunek.

EAEIPren urteko aurrekontuan sartu beharko da enpresa irakurleen proiektu guztien kostua, eta langile-kopuruaren eta enpresarako aukeratutako formatuaren (konpromiso-maila desberdinak ezarri dira) arabera izango da kostu hori. Beste alde batetik, enpresa-liburutegiko aleak enpresak berak erostea sustatu behar dela uste dugu.

Enpresetako irakurketa-kanpainen bidez, honako hauek landuko eta aplikatuko dira: A.5 helburua, "Irakurketa sustatzea esparru sozioekonomikoetan, pertsonen eta enpresen lanbide-prestakuntza hobetzeko tresna den heinean", C.3 helburua, "Irakurketa eta idazketa sustatzeko hiri-espazioak sortzea ohiko espazioetatik kanpo", D.1 helburua, "Irakurketaren kontzeptu berri bat zabaltzea, eta egungo gizartean garrantzi handia duela gogoraraztea erakunde publikoetako, komunikabideetako eta kultura-enpresetako eta -industrietako arduradunei", eta L-05 jarduera-ildoak, "Langileei zuzendutako irakurketa-zerbitzuak sortzea euskal enpresetan".